

## HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

### BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

#### **1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

Kontratu honen objektua edo xedea Itsasondoko udalerrian Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua (PSZ) ematea da, Baldintza Teknikoen Plegu honetan eta Administrazio Klausula Partikularren Agirian jasotzen denarekin bat etorritz.

Itsasondoko PSZ zerbitzuaren plangintza, arreta eta kudeaketa nagusiki , Goiko kale auzoan kokatzen den “Karreape Gaztelekuan” ekipamenduan egingo den arren, kale dinamizazioa kontuan izango da adin tarte guztien partehartzea sustatzeko.

Kontratuaren exekuzioak Itsasondoko PSZ zerbitzuaren diseinu, planifikatze, emate eta antolaketa lanak egitea hartzen ditu bere baitan.

#### **2.- JUSTIFIKAZIOA.**

Itsasondoko Udalak herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea sustatzea du helburu, eta bereziki, urteetan zehar eginiko ibilbideak, gazteri lantalde foroa hausnarketa batera eraman zuen eta bertan herrian garatu eta landu beharreko printzipio batzuk ezarri ziren:

##### 1. Identitatea

Euskaldunak gara, gure hizkuntza euskara da eta Itsasondon euskaraz bizi gara. Honez gain, itsasondoar sentitzen gara eta bere txikitasunean handi den herri honen partaide gara. Amaitzeko, publikotasuna aldarrikatzen dugu, guztiontzako aukera den publikoa defendatzen dugu eta horren aldekotasuna mantenduko dugu, Urkipe herri eskolatik haratago ere.

##### 2. Guztion Herria

Herrian bizi den herritar bakoitzarena eta guztiona da Itsasondo, guztiak kontuan hartzen gaituena eta denentzat irekia. Adin-kultur-jatorri aniztasunak balioan jarriz, gizarte aldakorrean bizi gara eta guztiontzat izango den harrera herri orekatu eta inklusiboa dugu helburu.

##### 3. Herritik eta herriarentzat

Txikitasunean handi da gure herria eta honi bere garrantzia aitortuz, gure txikitasunetik ditugun baliabideak modu egokian bideratu behar ditugu herritik sortzen den balioa, berriz herrira itzuli dadin. Honengatik guztiarengatik, eredugarri izan behar dugu eta herriko ekintzetan parte hartzen zein antolakuntzan txertatzen joan txikitatik ohitzen joan herritarrak. Herria, herritarrek egiten dute eta herritarrak protagonista diren herri aktibo eta parte hartzailea sustatu nahi dugu.

Hausnarketa honetatik abiatuz eta, "Gaztematika-Gipuzkoako Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Sistema"-ren partaide garenez, balio eta irizpide hauek azpimarratzen ditugu:

- Haurrak, nerabeak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera sektoriala eta espezifikoa nahiz zeharkakoa eta integrala.
- Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna.
- Erantzukizun publikoa eta gizartearen parte-hartzea.
- Koordinazioa eta sare-lana.
- Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa.
- Jakintzan oinarritutako kalitatezko esku-hartzea.

Gaztematikak, hurbileko zerbitzuak eskainiz eta zuzeneko arretaren bidez, haurren nerabeen eta gazteen beharrei eta eskaerei erantzuten die. Beste esparru eta sistema batzuekin lankidetzan aritzea eta sarean lan egitea ere bultzatzen du.

Itsasondoko Udalaren Gazteria Politikaren xede nagusia da haur, nerabe eta gazteei haien haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta jarraitua ematea, etapa horrek dituen bi dimentsiotan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa, non pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista den, hiritartasun-eskubideei lotuta dagoen eta ehundura sozialaren ezinbesteko zati den.
- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, emantzipazio-prozesu progresibo bat ahalbidetzeko etapa gisa, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa, izan ere, heldutasunean lortzen baita erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizitza-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia mailarik handiena.

Zerbitzua errespetuan, tolerantzian, askatasunean, berdintasunean, aniztasunaren aberastasunean, elkartasunean eta pertsona guztientzako giza eskubideen defentsan, oinarrituriko proiektua izan nahi du.

Zerbitzuaren azken helburua, lan metodologia parte-hartzaile, eraginkor eta zuzenaz baliatuz, haur, nerabe eta gazteen heldutasun pertsonala bultzatu eta komunitatearekiko konpromiso handiagoa sustatzea da.

### **3.- ZERBITZUAREN FUNTSA ETA HELBURUAK.**

#### **3.1.- Zerbitzuaren funtsa.**

Itsasondoko Parte-Hartzea Sustatzeko Zerbitzua zerbitzu publikoa da, haur, nerabe eta gazte guztientzako erreferente izan nahi duen arreta eta gizarte hezkuntza sustapenerako Udal zerbitzua, hezkuntza asmoa oinarri duena eta hezitzailearen eta haur, nerabe eta gazteen arteko harremana abiapuntu duena. Hezitzaileak, herrian erreferente izatea nahi da, herriko gune ezberdinetan jarduna burutuz.

Zerbitzua 6-30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteek dituzten behar sozio-hezitzaileetan oinarritzen da eta horiek asetzeko esku-hartze planifikatua eta metodologia sistematizatua eskaintzen ditu.

Herritar aktiboak sustatzea xede duen zerbitzua izanik, hiru dimentsioen lanketan oinarritzen da:

- Norbanako-mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea.
- Talde-mailan dimentsio aktiboa sustatzea: Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espirtu kritikoduna.
- Komunitate-mailan jendarteko aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea.

Bien bitartean, horrela ulertzen dugu parte hartzea: Norbanakoek (besteekin batera) beren ingurua eta harremanak aldatzeko duten gaitasuna da, beraien bizitzarekin zuzenean hala zeharka eragina duten baldintzetan eragin nahi izanik, erabakiak hartu eta beraien garapen pertsonal, nahiz kolektiboa ahalbidetuz.

Horrela, herritartasun aktiboa sustatzea eta parte hartzea bultzatzea elkar uztartzen diren kontzeptu eta metodologia bezala ulertzen ditugu. Biak ala biak, helburu eta bide dira. Komunitate baten parte diren, parte hartzen duten eta horren dinamizazioan eragile diren herritarrak nahi ditugu; eta, horretarako, komunitatean txertatutako zerbitzu baten beharra dugu, haur eta gazteak komunitatean parte har dezaten eta bertako eragile izan daitezen. Hain zuzen ere, Gaztematikan herritartasun aktiboa eraikitzeko bi ikasketa-tresna nagusi erabiltzeko hautua egin da: Herritarren parte hartzea aktiboa eta herritartasun aktiborako hezkuntza.

Herritarren parte hartze aktiboa: Parte hartzen parte hartuz ikasten delako, eta partehartzea bera ikasketa-prozesu iraunkor gisa ulertzen dugulako.

Herritartasun aktiborako hezkuntza: Parte hartu ahal izateko gaitasun eta konpetentzia jakin batzuk garatzeko aukera izan behar dugulako. Ezinbestekoa da hezkuntza ez formalaren bitartez, herritartasuna egikaritzeko beharrezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta aukerak ahalbidetzea. Nolabait, norbanakoek eta kolektiboek parte hartze aktiboa garatzeko dituzten aukeren artean desoreka nabarmenak daudelako: Bazterkeria egoerak bizitzeko arriskuak handitu direlako; eta generoak, klaseak, hizkuntzak, etniak, funtzio aniztasunak eta abarrek, eragin zuzena dutelako. Hain zuzen ere, hezkuntza bihurtu da, desoreka eta desberdintasun horien aurrean, aukera berdintasuna sustatzeko gako nagusienetakoa. Eta

hori bideragarri egiteko, ezinbestean, hurbileko profesionalen beharradugu.

Itsasondoko PSZ zerbitzuak haurrak, nerabeak eta gazteak hezteko helburua du eta horrela definitzen dugu:

- Balio-anitzeko proposamena da. Zerbitzuak haurrak, nerabeak eta gazteak bere osotasunean eta konplexutasunean hartzen ditu pertsonaren garapen integrala lortzeko.
- Partaidetzazko egitura bat da. Haurrek, nerabeek eta gazteek aktiboki parte-hartzen dute zerbitzuan; beren inguruko errealitatea ezagutu eta protagonista izan daitezen lan egiten da.
- Sustapeneko zerbitzua da, aukerak (laguntza, dinamizazioa, ikaskuntza, garapena, loturak) sortzen dituena.
- Komunitatearen parte da. Zerbitzua herriaren dinamikan sartuta eta beste eragile eta talde batzuekin harremanetan dago eta elkarrekin lan egiten du.

Itsasondoko PSZ zerbitzua honako elementuek osatzen dute:

- Ekipamendua, haurrak, nerabeak eta gazteak egoteko toki bat eta erreferentzien gune nagusia.
- Eskaintzen diren jarduerak eta ekintzak, ekipamenduan nahiz beste espazioetan (udal eraikinak, eremu irekia, eremu digitala).
- Harreman eragingarri baterako hezitzailez osatutako profesional talde bat.

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen da. Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Zerbitzu publikoa da, udalerriko haur, nerabe eta gazte guztientzako erreferentziazko gizarte-hezkuntzako zerbitzua.

### **3.2.- Zerbitzuaren helburuak.**

Zerbitzuko xede nagusia da Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzutea, bai nortasun pertsonala garatzearekin zerikusia dutenak eta baita garapen soziala garatzearekin zerikusia dutenak ere. Honako hauek hartzen dira besteak beste behartzat:

- Babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzatespena izatea.
- Ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea.
- Beren familiako, taldeko eta komunitateko ingurunearekin dituzten harremanen bitartez, maitasuna eta estimazioa jasotzea.
- Pertsona gisa beren burua ezagutzea eta beren ingurunea ulertzea.

- Haur, nerabe eta gazteen osasuna babestea eta sustatzea.

- Bizitzarako trebezia, gaitasun eta jarrera baliagarriak lortu eta garatzea.
- Autonomia eta erantzukizunez aritzea: erabakiak hartzea, nor bere gain arazoizko arriskuak hartzea, aukeratzea, erantzukizuna hartzea.
- Pertsonen arteko lotura egonkorak eta atsegin emaileak eraikitzea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea: adiskidetasuna, harreman sareak, partaidetza taldeak.
- Adieraztea, parte hartzea eta sortzea.
- Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizartean ikastea.
- Beren bizitzako protagonista sentitzea.

Helburu orokorrak:

Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak honako helburu orokorrak ditu:

- Haur, nerabe eta gazteak aisialdiaz gozatzea era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian.
- Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eraten den kontuan izanik.
- Haur, nerabe eta gazteen garapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea, trantsizioak erraztuz.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak, nerabeak eta gazteak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.
- Esku hartzeko espazio desberdinak sortzea, eragina dutenak eta haur, nerabe eta gazteen beharretara egokituak, osagarriak direnak eta konpentsatzen dutenak.
- Herriko 6-30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteen zerbitzura dauden egitura erreferentzialak izatea, hurbilekoak eta jarraituak.
- Haur, nerabe eta gazteei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan

sistema komunitario batean parte hartzea.

- Haur, nerabe eta gazteei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin.

### **Helburu zehatzak:**

Helburu nagusi horiez gain, zehatzagoak diren hauek ere bete nahi du Itsasondoko Udalak Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko zerbitzuaren bitartez:

- “Karreape” herriko haurren eta nerabeen erreferentziazko topaleku euskalduna izatea.
- Itsasondoar aktiboak izatea, herritik herriarentzat printzipioa barneratzea.
- Haur, nerabe eta gazteentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitze gune aproposak eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Haur, nerabe eta gazte etorkinen parte hartzea eta integrazioa sustatzea.
- Aisialdi eredu kontsumistari alternatibak eskaintzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetzeta, elkartasuna, enpatia.
- Haur, nerabe eta gazteek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- Behar bereziak dituzten haur, nerabe eta gazteek zerbitzua erabiltzeko aukera erraztea.
- Guraso eta tutoreak zerbitzuaren partaide bilakatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea zerbitzuan, auzoan eta herrian.
- Haur, nerabe eta gazteei dagokien herriko gai eta eremu espezifikotan erreferentziazko eragile izatea.
- Haur, nerabe eta gazteak herriko espazio eta eremu publikoarekiko ahalduntzea.
- Herriko gainontzeko eragileekin batera elkarlanean aritzea eta sare-lana gauzatzea.

## **Adin-tarteei dagozkien helburuak:**

### ***Haurren atala:***

Zerbitzu honen asmoa da herritartasun aktiboa txikitatik lantzen hasteko eskaintza publikoa bermatzea, horregatik 4-11 urte bitarteko haurrekin zuzenean lan egiten hastea proposatzen dugu. Atal honen helburuak ondorengoak lirateke:

- Haurrak eskubidedun herritar aitortzea, eta beraiei dagokien eremu, zerbitzu, proiektu eta gaien azterketan zein eta erabakitzeko guneetan, euren partaidetza ahalbidetzea eta sustatzea.
- Arlo komunitarioan haurren partaidetza ikusaraztea eta sustatzea.
- Dinamika komunitarioen egunerokotasunean haurren ikuspuntua txertatzea eta parte-hartzea ahalbidetzea.
- Herrian haurren partaidetzarako guneak bultzatzea eta proposatzea.
- Protagonismoa haurrari berari ematea.
- Haurrak komunitatearen partaide sentiaraztea eta herritartasun aktiborako bidean trebatzea.
- Herri sentimendua landu eta handitzea.

### ***Nerabeen atala:***

Nerabeei arreta eskaintzeko giltzarria da Itsasondoko PSZ zerbitzua: gertuko zerbitzua (metodologian eta harremanetan), iraunkorra, parte-hartzailea, komunitarioa eta eraldatzailea. Atalaren helburu orokorrak honakoak dira:

- Nerabezaroan eta herriko 12-17 urte bitarteko nerabeen zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea, hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua.
- Nerabeen garapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea trantsizioak erraztuz.
- Esku-hartzeko espazio desberdinak (aurrez aurrekoak zein digital edo birtualak), eragina dutenak eta nerabeen beharretara egokituak sortzea, osagarriak direnak eta beste zerbitzuetan eskaintzen dena konpentsatzen dutenak.
- Nerabeak aisialdiaz era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Nerabeen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.

- Hezkidetzan ardaztutako zerbitzua eskaintzea, eta nesken eta mutilen arteko berdintasuna bermatzea.
- Nerabeen arteko harreman eta portaerak tratu onetan oinarritutakoak izan daitezen sustatzea eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko neurriak hartzea.
- Nerabeen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte-hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, nerabeak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.
- Nerabeen parte-hartzea zerbitzuaren eremu guztietara zabaltzea, diseinu, planifikazio eta ebaluazio parte-hartzaileak helburu izanik.
- Nerabe-izaerei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte-hartzea.
- Nerabeen aisialdia bermatzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak ahalbidetzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.
- Arlo komunitarioan nerabeen parte-hartze aktiboa ahalbidetzea eta sustatzea herriko eragile eta agente estrategikoekin batera.

### **Gazteen atala:**

18-30 urte bitarteko Itsasondoko gazteentzako ez dugu arreta zuzenerako ordu jakinik proposatzen, baina bai haien beharrei egokitutako lan-ildo zein lan-dinamika bat egonkortu eta baliabideak eskuragarri egitea. Atal honen helburuak ondorengoak dira:

- Informazio eta orientazioa: Haien beharrak asetzeko baliagarria zaien informazioa eskuratzeko orientazioa eskaintzea.
- Garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri jartzea eta bide-laguntza eskaintzea.
- Herriko eragile aktibo izan daitezen saiakera egitea; elkarteetan partaide izan daitezen, herriko ekintza ezberdinetan parte hartu dezaten ahalbidetuz edota gazte talde bezala antolatu daitezen sustatuz.





### **3.3.- Zerbitzua komunitatearen zati, partaide eta dinamizatzaile.**

Zerbitzuaren funtsa herritartasun aktiboa izanik, txertatzen den komunitatearekiko harreman sistemikoa garatu behar du. Zerbitzu honek komunitatearen parte estrategikoa izan nahi du, haur, nerabe eta gazteen protagonismoa ahalbidetuz eta, horretarako, herriko dinamizazioan arituz.

Herri mailako sareak ezagutu eta parte hartu, sortu eta dinamizatzea du bide zerbitzuak, erabiltzaileak komunitateko kide aktibo izan daitezen. Horretarako, honako lanak hartuko ditu beregain:

- Herriko sareak ezagutu eta elkarlana bideratu.
- Herriko gainerako talde eta eragileekin koordinazio bideak sortu eta egonkortu, herri bizitza batzordea, jai batzordea zein gazteri foroan parte hartuko dute hezitzaileek (hezitzaile koordinatzaileak behintzat). Udalak zerbitzua aurrera eramateko beharrezko foroetan parte hartzea eskatzeko eskumena izango die hezitzaileei.
- Herriko eragileen eta haur, nerabe eta gazteen arteko ezagutza eta elkarlana ahalbidetu.
- Herriko baliabideak eta ezagutzak konpartitzeko bideak, harremanak, guneak edota espazioak sortu.

**Komunitate eremuaren garapenari** dagokionez, honako helburuak proposatzen dira:

- Komunitatearekiko haur, nerabe eta gazteen alorrean aitzindaria, berritzailea eta ekintzailea izatea.
- Zerbitzua komunitatean haur, nerabe eta gazteen erreferentziazko agente bilakatzea.
- Komunitatean haur, nerabe eta gazteenganako interesa piztea.
- Ikuspegi komunitarioa, osoa eta integratzailea, zerbitzuan garatzen diren jarduerak guztietan txertatzea.
- Komunitatearen dinamiketan parte aktiboa izatea eta haur, nerabe eta gazteek protagonismoa izan dezaten lan egitea (jaiak, elkarten egitarauak, txapelketak, jarduerak, ...).
- Zerbitzua sare lan-sistema komunitarioan kide, eragile eta dinamizatzailea izatea.

### **4.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.**

Itsasondoko Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua ematea, Itsasondoko Udalak haur, nerabe eta gazteentzat ezarri dituen helburuak lortzera bideratuko da. PSZ zerbitzuaren arduradun nagusia Itsasondoko Udaleko Kultura eta Gazteria arloa da; zehazki, Kultura eta Gazteria arloko zinegotzia eta udal dinamizatzailea.

Erakunde esleipendunak udal- arduradunek zehaztutako orientabide eta arauak beteko ditu. PSZ zerbitzua autonomiaren eta erantzukizunaren sortzaile izan behar du. Bide horretan, haurrak, nerabeak eta gazteak zerbitzuaren parte izan behar dira; parte-hartzea ez da mugatuko beren interes eta nahiak adieraztera, baizik eta, mailaz maila, zerbitzuak antolatzeko fase guztietan (planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea) parte har dezaten sustatuko da.

Itsasondoko PSZ zerbitzuaren kudeaketan **bi lan-eremu** bereiziko dira, alde batetik **arreta zuzena**, hau da, haur, nerabe eta gazteekin egin beharreko esku-hartzea (aurrez aurrekoa nahiz digitala) eta zerbitzua eremu komunitarioan garatzea, eta, beste aldetik, **zeharkako arretaren** barruan, funtsezua, planifikazioa, koordinazioa eta antolaketa.

Haur, nerabe eta gazteen interes eta gogoak azalera eta landuko dira zerbitzuan eta beraien parte-hartzea bilatuko da zerbitzuaren eskaintzan. Herriko haur, nerabe eta gazte guztiak izango dira zerbitzuaren jomuga. Adinei egokitutako programazioak eskainiko dira. Era berean, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetzara arauak erabiltzaileek eta lan-taldeak elkarrekin eztabaidatu eta adostuko dituzte. Eskaintza haur, nerabe eta gazteen eskariak eta hezitzaileek antzemandako beharrak asetzeko tresna izango da.

**Ekintza-arlo nagusiak** hauek izango dira: informazioa eta orientazioa, bide-laguntza, aisia hezitzailea, adierazpenerako eta partaidetzarako bideak, eta sorkuntza eta produkzio bideak. Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurreikusiko dira, zeintzuetan haur eta nerabeek modu askean jolastu, hitz egin edo atsedean hartzeko aukera izan dezaten. Besteak beste, eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, proiektzioak, ikuskizunak, irteerak, sare sozialetan ekintza dinamizatuak, herriko ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak,...).

Langilearen eta erabiltzailearen arteko harreman hezitzailea ezinbesteko tresna izango da eskaintza antolatzerakoan. Euskara izango da zerbitzuaren hizkuntza lehenetsia eta zerbitzutik generoen arteko berdintasuna zein kulturartekotasuna sustatuko dira, jatorri ezberdinetako haur eta nerabeen aukera berdintasuna bultzatuz (hauek dira zerbitzuaren zehar lerroak). Erabiltzen diren materialek nahiz lantzen diren edukiek genero-rol eta – estereotipo sexistak irauliko dituzte. Hala, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna lantzeko baliagarri diren material zein ekintzak landuko dira.



## Zerbitzuaren egutegiari dagokionez, ezaugarri hauek izango ditu:

- Zerbitzua irailetik- uztaileira emango da. Ondorengo aste hauetan ez da zerbitzurik emango: Urtarrileko lehen astean (eskola itzulerarekin batera hasiko da) apirilko aste santuko lehen astean, uztaileko azken astean, abuztuko hilabete osoan, iraileko lehen bi asteetan.
- Neguko oporretan, aste santuko bigarren asteko oporretan eta ekaina-uztailean (udalekuak) eskaintza-programa berezia antolatuko da.
- Arreta zuzeneko (ekintzak) egutegiari dagokionez, **astean zehar 6 orduz egingo da, 3 orduz ostiraletan gaztelekuan eta beste 3 orduz asteko beste egun batean kale ekintza (finkoa izango da, herrian bestelako beharrik ez bada suertatzen).** Ordutegia eta egutegia Udalarekin adostua izango da beti. Arreta zuzeneko ordutegia ekintzetara, antolaketa beharretara zein eta zerbitzuaren beharretara moldatu daiteke, zerbitzuari dagokion malgutasuna kontuan izanik. Arreta zuzeneko orduak, helburu horretara bideratzen ez badira, zeharreko arreta (prestaketa) gauzatzeko erabiliko dira.
- Zeharkako arreta goizeko ordutegian egitea ahalbideratuko da, udal gaineko sailekin koordinatu ahal izateko; gazteria zein ongizateko langileekin bereziki. Herri bizitza batzordea, jai batzordean eta gazteri foroan parte hartuko dute hezitzaileek (Hezitzaile koordinatzaileak gutxienez)
- Hezitzaile koordinatzaileak, 9 ordu/ asteko dedikazioa izango du:
  - 3 zeharkako arreta
  - 3 orduz kaleko ekintza
  - 3 orduz gaztelekuko ekintza
- Hezitzaileak 8 ordu/asteko dedikazioa izango du
  - 2 ordu zeharkako arreta,
  - 3 orduz kaleko ekintza
  - 3 orduz gaztelekuko ekintza.
- Arrazoien batengatik kaleko ekintza ez bada egin, ordu horiek zeharkako lanerako edo beste ekintza bat gauzatzeko egingo dira.
- Opor garaietan dedikazio hau aldatuko da, udalekuetan kasu, 20 ordu/astekoa izango dute biek.
- Haez gain, bakoitzak 10 formazio ordu izango ditu aurreikusiak, gutxienez. Gaztematika sareko hezitzaileen foroetan parte hartzeko erabili daitezke ordu hauek edo zeharkako orduak ere, hauetan parte hartu beharko delarik.
- Udalekuak prestatzeko, 10 ordu gehiago izango dute bakoitzak.
- Ikasturteko ordutegi eta egutegia urtero adostuko da Udalarekin.



Arreta zuzena eskaintzeaz gain, hezitzaile-taldeak zerbitzua planifikatu eta ebaluatuko du. Herriko eragile zein udaleko beste zerbitzuekin koordinatuko da, bereziki, haur, nerabe eta gazteekin lan egiten dutenekin (gazteri foroan) hauen behar anitzei era osagarrian erantzuteko. Hezitzaile-taldea Kultura eta Gazteria teknikariarekin bilduko da foroaren aurretik, zerbitzuaren jarraipen orokorra egiteko. Hezitzaile taldeak kudeatzaileari emango dio asteroko ekintzen berri eta egon daitezkeen inzidentzien berri ere, honek udalari jakinaraziko dizkiolarik.

### **Zerbitzua diseinatuko da ondorengo zazpi eremuak kontuan izanik:**

- Haur, nerabe eta gazteentzako eremua.
- Hezkuntza intenzionaleko eremua.
- Zehaztutako hezkuntza-esparru eremua.
- Komunitate-eremu garatua.
- Besteekin koordinatutako eremua.
- Barnean antolatutako eremua.
- Planifikatutako eremua.

### **Planifikazio sistemari dagokionez, ondorengo lau faseak landuko dira:**

- Fundamentazioa (diagnostikoa).
- Xedea eta helburuak.
- Programazioa (tarteko ebaluazioa, helburu berri edo egokituak, eta programazioa).
- Amaierako ebaluazioa (parte-hartzailea eta adierazle eta estandarrekin neurtua).

Zerbitzuaren fundamentazioa lantzeko lehen urratsa herriko haur, nerabe eta gazteen diagnostiko parte-hartzailea egitea izango da.

Bestetik ere, hezitzaile-taldeak zerbitzuaren komunikaziorako tresnak sortzeko eta mantentze-lanak egiteko, formakuntza saioretara joateko, eta oro har, Gaztematikako sarearen partaidea izateko foro eta lan-taldeetan parte hartzeko orduak izango ditu.

**Zerbitzuaren komunikazioari** dagokionez, zabalkundeaz eta komunikazio-ekintzez esleipenduna arduratuko da, udal komunikazio plana jarraituz eta Kultura eta Gazteria arloarekin adostuta. Plangintza prozesu osoan komunikazioko ekintzak kontuan hartuko dira. Zerbitzuaren inguruko informazioa eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritarrei.

**Zerbitzua parte-hartzailea** izango da bere fase guztietan: diseinua, garapena, exekuzioa eta ebaluazioa. Horretarako, partaidetza proposamena diseinatuko da eta partaidetza bideak eta tresnak baliatua. Adina eta erabilera motak kontuan hartuko ditu proposamen honek.

Esan bezala, inklusioa, hezkidetza eta genero-berdintasuna eta euskara izango dira



**zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak.** Modu zehatz batean eta jarraian azaltzen diren irizpideen arabera garatuko dira. Zehar-lerroak zerbitzuaren fase guztietan landuko dira; diseinuan, plangintzan, esku-hartzean eta ebaluazioan txertatuko dira. Era berean, kontuan hartu beharko dira udal departamentuek garatutako planak, indarrean direnak eta Udalak onartuak dituenak.

### ***Hezkidetzeta eta genero-berdintasuna:***

Kontuan hartuko da zer eragin eta ondorio dituen sexu bereizketak haur eta nerabeen sozializazio prozesuan eta genero ikuspegia txertatu beharko da zerbitzuaren diseinu, planifikazio, esku-hartze eta ebaluazio lan guztietan. Azken helburua izango da garapen integrala bultzatzea, generoaren araberrako estereotipo eta rola baztertuko dituen eta baita bereizkeria mota oro ere.

Zerbitzuan jarduera hezkidetzaila egiten dela bermatuko da ondorengo alderdiak garatzerakoan: harremanak, komunikazioa, barne antolakuntza, espazioaren kudeaketa eta erabilera, esku hartzeko edukiak eta material pedagogikoak.

### ***Inklusioa:***

Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, sexua, jatorria, sinesmena, gaitasuna, etab.) eta tratu eta aukera berdintasuna bermatuko da. Sustatuko da norbanako guztiak barnean sartzea eta elkarri eragitea, elkarrekin bizitzen ikastea eta gozatzea bultzatuz.

Zerbitzua ahaleginduko da arreta ematen haurren eta nerabeen premien eta gaitasunen arabera.

Zerbitzuan arreta berezia eskainiko zaie zailtasunak edo behar bereziak dituzten haur eta nerabeei (gizarte zailtasun egoerak, aniztasun funtzionala, jatorriz beste kultura batekoak.)

### ***Euskara:***

Euskara izango da Zerbitzuko hizkuntza. Batez ere erabilera soziala indartzeko lana egingo da, haur eta nerabeei euskaraz bizitzeko aukera erreala eskaintzeko. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: langile elebidunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazioa, etab.

Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontutan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, bai erabiltzaile eta langileen artean baita haurren eta nerabeen artean ere.

Zentzu berean, Zerbitzutik etengabeki bilatuko da haur eta nerabeek euskararekiko bizipen eta jarrera positiboak izatea, eta euskal kultura ezagutzea.

## **5.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK ETA GIZA BALIABIDEAK.**

### **5.1.- Esleipendunaren betebeharrak.**

Esleipendunak honako betebeharrak izango ditu:

- Esleipendunak ezingo du kudeaketa hirugarrenen esku utzi, Udalaren aurretiazko baimenik gabe.
- Esleipendunak ezingo du kartelik jarri, ez eta idazkunik edo publizitateko iragarkirik ere,



ITSASONDOKO  
UDALA

Udalaren berariazko baimenik gabe.



- Esleipenduna da bere jardueraren burutzapean edo garapenean pertsonengan edo gauzengan sor daitekeen kalte ororen erantzule, baita udalaren jabetzakoak diren espazioengan sortutakoen erantzule ere.
- Esleipendunaren konturakoak izango dira kasuan kasu dagozkion zerga-arloko, prebentzioko- eta segurtasun-arloko nahiz gizarte-arloko betebeharrak guztien ordainketa.
- Kontratista behartuta dago Udalaren esku jartzea edozein unean eta, nolana ere, kontratu amaieran, zerbitzua kudeatu den bitartean bildu eta erabili diren funts informatikoak (programa eta fitxategiak, eta horiek erabiltzeko jarraibideak) eta agiri guztiak.
- Enpresa esleipendunak kudeatuko ditu antolatzen diren eta udal tasa ezartzen zaien ikastaro, tailer edo bestelako jarduerak.



## Zerbitzuaren jarraipena

Hiru hilean behin Zerbitzuan egindakoaren ebaluazioa aurkeztuko du Udalean, bai eta hurrengo hiru hilabeterako planifikazioa, helburuak eta ekintzak ere. Ikasturte bukaeran berriz egindakoaren memoria aurkeztuko du, balorazio-txosten bat izango dena. Txosten hauen edukia aurrez adostuko bada ere, honako hau jasoko dute:

- Zehar-lerroei loturiko helburuak eta ekintzak: Herriko hiru printzipioen lanketari loturikoak, inklusioa lantzekoak, berdintasuna eta hezkidetzak sustatzekoak eta euskararen erabilera areagotzekoak.
- Datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira (zerbitzuaren erabilera mota guztien inguruko datuak jasoko dira: ekipamendura gerturatzen direnak, ekintzetan parte hartzen dutenak, espazio digitaleko erabiltzaileenak baleude...).
- Jasotako datuak nahiz ekintzen zein esku-hartzeen ebaluazioa genero-ikuspegia aintzat hartuta aztertuko dira.

Horretaz gain, kontratuaren betetze mailaren jarraipena egingo da hiru hileroko maiztasunarekin. Besteen artean, giza baliabideen kudeaketa, gastuak, helburuen betetze maila, prestakuntza, lan tresnak, Gaztematikako parte hartzea eta sortu daitezkeen gatazken ebazpena eta hobekuntzak landuko dira.

## 5.2.- Giza baliabideak.

Zerbitzua era egokian eskaini ahal izateko, esleipendunak lan-taldea jarriko du. **Lan-taldea mistoa izatea lehenetsiko da.** Langile horiek haur eta nerabeen garapen pertsonal eta sozialean laguntzeko, parte-hartzea bultzatzeko eta komunitatean integratzeko, beste arloko profesionalekin batera gizarte-hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erreferenteak dira.

Lan-taldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izango da agiri honetan jasotzen diren zerbitzuen beharrianak estaltzeko.

Lan-taldea honako hauek osatuko dute:

- Entitate edo elkarteko arduraduna.
- 1 Hezitzaile-koordinatzailea (**9 ordu/ asteen lanaldia+80 ordu udalekuak+10 ordu formazioa+ 10 ordu udaleku prestaketa**)
- 1 Hezitzaile (**8 ordu/ asteen lanaldia+80 ordu udalekuak+ 10 ordu formazioa+ 10 ordu udaleku prestaketa**)

Esleipendunak, nolana ere, sor daitezkeen ordezkapenak bermatuko ditu, langile



titularrak betetzen dituen baldintza berberak betetzen dituzten pertsonekin. Hasierako lan-taldean gertatzen diren aldaketa guztiek Udalaren oniritzia beharko dute.

Zerbitzua eskainiko duten langileei Esku-Hartze Sozialari Buruzko Gipuzkoako III. Hitzarmen Kolektiboan (20100025012011 kodea) zehazten diren lan-baldintzak aplikatuko zaizkie, eta Esku-Hartze Sozialeko arloko 2. taldean kokatuko dira.

Udalak, egoki baderitzo, enpresa esleipendunari edozein unetan eskatu ahal izango dio TC-1 eta TC-2 agirien aldakirik, agiri horiei dagozkien ordainketa zurigarriez gain, eta langileen lansari agirien aldakiak.

### **Langileen prestakuntza baldintzak:**

Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

#### **- Koordinatzailea:**

Kontratatuko den pertsonak, gutxienez, ondoko baldintzak bete beharko ditu: Konplexutasun eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak izan beharko da; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako erdi-mailako unibertsitate-prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatuak dituzte horrelako langileek. Hau da, Esku hartze sozialari buruzko Gipuzkoako III Lan hitzarmeneko 2. talde profesionalean egoteko profila izan behar du.

#### **- Hezitzaileak:**

Kontratatuko diren pertsonak, gutxienez, ondoko baldintzak bete beharko dituzte: Konplexutasun eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak izan beharko dira; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako erdi-mailako unibertsitate-prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatuak dituzte horrelako langileek. Hau da, Esku hartze sozialari buruzko Gipuzkoako III Lan hitzarmeneko 2. talde profesionalean egoteko profila izan behar dute.

- **Euskara:** Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza eskakizuna EGA titulua edo horien baliokidea.)

• **Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean ez dagoenaren ziurtagiria:** Adingabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

### **5.3.- Lan-taldearen funtzioak.**

**Entitate edo elkarte arduradunak** bere gain izango dituen egitekoak ondokoak dira:





- Haur, nerabe eta gazteentzako eremua:
  1. Zerbitzuaren funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratzea.
  2. Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan laguntzea.
  
- Esku-hartze hezitzailea:
  3. Esku-hartzearen analisi orokorra gidatzea.
  4. Esku-hartzearen jarraipena egitea.
  
- Hezkuntza markoa:
  5. Haur, nerabe eta gazteen dinamikak behatzeko jarraibide batzuk adostea eta jarraipen-sistema bat izatea bermatzea.
  6. Hezitzaileei aholkuak eta orientabidea ematea lan-hezitzailea burutzeko.
  
- Eremu komunitarioa:
  7. Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzeko inizatiba eta erantzukizuna agertzea.
  
- Besteekin koordinatua:
  8. Beste eragile batzuekin koordinazioa eratzea eta koordinazio-sistema definitzea: gizarte-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, kultur zerbitzuak, eta abar.
  
- Antolatutako zerbitzua:
  9. Hezitzaile-taldearen koordinazio orokorra egitea.
  10. Hezitzaileekin banakako koordinazioa egitea.
  11. Lan-taldearen antolaketa ahalbidetzea.
  12. Hezitzaileei laguntza tekniko ematea, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez eta etengabeko hausnarketa ahalbidetuz.
  13. Hezitzaile bakoitzak zein talde osoak zerbitzuko arlo desberdinen inguruan eginiko hausnarketak ahalbidetzea, ondoren bateratze-lana egiteko.
  14. Zerbitzurako beharrezko diren tresnak hezitzaileen eskura jartzea.
  15. Zerbitzuan sortu daitezkeen arazoak aurreikusi edo sortzen diren arazo berri ematea Kultura eta Gazteria teknikariari.
  16. Kontratuaren jarraipena egitea Kultura eta Gazteria arloarekin batera eta zerbitzuaren kudeaketan sortu daitezkeen gorabeherak aurreikusi eta konponbideak proposatzea.
  
- Planifikatutako zerbitzua:
  17. Zerbitzuaren plangintza-sistema finkatzea: urtekoa, hiruhilekoa nola hilekoa.
  18. Zerbitzuaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatzea.

## **Hezitzaileen eginkizunak ondokoak izango dira:**

- Haur, nerabe eta gazteentzako eremua:
  1. Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartzea.
  2. Zerbitzuaren funtsatze-fasean parte hartzea.
  3. Herriko haur, nerabe eta gazte guztien parte-hartzea sustatzea (neskak eta mutilak, koadrilak, bakarrik daudenak, desberdinak direnak, zailtasunak dituztenak,...).
  4. Haur, nerabe eta gazteei buruzko ideia positiboak sortzen laguntzea komunitatean.
  5. Haur, nerabe eta gazteen familiengana hurbiltzea.
  6. Haur, nerabe eta gazteez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen laguntzea.
- Esku-hartze hezitzailea:
  8. Haur, nerabe eta gazteen hezkuntza-berezitasuna ulertzea, hezteko, laguntzeko eta eragina izateko.
  9. Zerbitzuaren zeharkako lerroak ( printzipioak, inklusioa, genero-berdintasuna eta euskara)



sendotzea.

10. Prestakuntza eta trebakuntza-plana garatzen laguntzea eta Gaztematikako foro, formazio-saio eta bestelakoetan parte hartzea.
11. Zerbitzuaren kalitatearen konpromisoa hartzea.

- Hezkuntza markoa:

12. Gizarte eta heziketako esku-hartzea definitzea.
13. Heziketa-prozesuak aktibatu, esku-hartzea garatzea; aurrez aurrekoa eta digitala.
14. Haur, nerabe eta gazteen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea beren motibazioen, kezken eta ekimenen arabera; aurrez aurrekoa eta digitala.
15. Zerbitzuaren ekintza-arloak (informazioa, orientazioa, bide-laguntza, aisia hezitzailea, adierazpenerako eta partaidetzarako bideak eta sorkuntzarako eta produkziarako bideak) aztertzea, osatzea, proposamenak egitea eta garatzea.
16. Zerbitzuaren presentzia haurrak, nerabeak eta gazteak dauden beste espazioetan garatzea: kalea, lokalak, espazio digitala,...

- Eremu komunitarioa:

17. Ikuspegi komunitarioa (osoa eta integratzailea) txertatzea zerbitzuan garatzen diren jardura guztietan.
18. Komunitatean parte hartzea, zerbitzuak eta hartzailleek protagonismoa izateko.
19. Sare-lana bultzatzea, eraikitzea eta sustatzea.
20. Zerbitzua komunitatean eta lurraldean txertatzen laguntzea eta komunitateko erreferentziazko eragile izatea.

- Besteekin koordinatua:

21. Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.
22. Udaleko beste sailen ezaugarrien eta jardueren ezagutza izatea.
23. Komunitateko zerbitzuen artean trukatzeko den informazioa kudeatzeko sistema bat eratzea.
24. Haur, nerabe eta gazteez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
25. Haurren, nerabeen eta gazteen eskaintzaren arteko elkarreragina ahalbidetzea.
26. Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.

- Antolatutako zerbitzua:

27. Zuzeneko esku-hartzearen antolaketan parte hartzea.
28. Datuak (sexuaren arabera bereizita) jaso eta informazioa kudeatzea.
29. Dagozkion administrazio-lanak egitea.
30. Baliabide materialak kudeatzea.
31. Esku-hartzea egiten duen lan-taldearen koordinazioan parte hartzea.
32. Lan-taldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.
33. Koordinatzailearekin elkarlana egitea eta harekin batera hausnarketa saioetan parte hartzea, zailtasun-egoeren segimendua egitea (besteak beste, tentsio egoerak erantzuna emateko analisia, neke fisikoa eta emozionala).



#### Planifikatutako zerbitzua:

34. Zerbitzuaren planifikazioan, sistemaren diseinuan eta lantzean parte hartzea.
35. Zerbitzuaren programazioa eta eguneroko jardura planifikatzea.
36. Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzea.
37. Giza baliabideen kudeaketan parte hartzea.
38. Espazioa antolatzea. Gaztel e k u a garbi eta txukun mantentzea, beti baldintza egokietan, haur eta nerabeen artean jokabide horiek ohitura gisa erro daitezen bultzatuz.

**Hezitzaile-koordinatzailearen eginkizunak** arestian zehaztu direnaz gain ondokoak izango dira:

1. Nerabeen eta gazteen ataleko erreferentziazko hezitzailea izatea.
2. Hezitzaile-taldearen dinamizazioa eta eguneroko koordinazioa egitea.
3. Lantaldeko hezitzaileei laguntza teknikoa, orientazioa eta bide-laguntza ematea enpresako arduradunarekin batera.
4. Egunerokotasunean, Zerbitzuko funtzionamendua eta antolaketa orokorra koordinatzea.
5. Zerbitzuaren funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratzea.
6. Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan laguntzea enpresako arduradunarekin batera.
7. Esku-hartzearen analisi orokorra koordinatzea.
8. Sareko lan-sistema komunitarioan Zerbitzuko erreferentia izatea.
9. Egunerokotasunean hezitzaile taldearen antolaketa bideratzea.
10. Zerbitzuaren plangintza-sistemaren koordinazioa burutzea enpresako arduradunarekin batera.
11. Zerbitzuaren komunikazioaz eta informazioaren zabalkundeaz arduratzea (hedabideak, sare sozialak,...).

#### **5.4.- Azpikontratazioa.**

Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

#### **6.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK.**

Aurkeztutako proposamen teknikoaren kalitatea baloratuko da. Baliozko judizioaren.



araberako irizpideetan, gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira. Baztertu egingo dira gutxienerako puntuaketa lortzen ez duten proposamenak.

### **Balorazioa izango duten irizpideak.**

Zerbitzuaren proiektua: 49 puntu.

#### • **Zerbitzuaren marko teorikoa:**

- Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemarekiko kokapena.
- Marko teorikoa, helburuak eta proposatzen diren jarduerak era egokian erlazionatzea.
- Itsasondoko printzipio hezitzaileekin bat egiten duen markoaren kokapena.

#### • **Lan metodologia:**

- Arreta zuzena eta eremu komunitarioa nola landuko diren zehaztea:
    - Arreta zuzenerako planteamendu orokorra.
    - Adin tarteetarako eta trantsizioetarako lan proposamena.
    - Jarduera-eremuak eta esku-hartze proposamena.
    - Zehar-lerroen planteamendua.
    - Gurasoen parte hartzea sustatzeko proposamena.
  - Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea zerbitzuan. (Diseinutik ebaluaziora eta adin tarte guztiak kontuan izanik).
  - Planifikazio eta ebaluazio sistema:
    - Adierazle eta estandarren bidezko ebaluazioa.
    - Hiruhileko jarraipen txostenen eta urteko memoriaren gidioiak.
    - Datuen bilketa (zer datu, noiz, nola, tresnak).
    - Bakarkako eta taldeko jarraipen fitxa.
  - Barne antolaketa proposamena (egitura, bilera maiztasuna, edukiak...).
- #### • **Proposamena udalerrriaren errealitatera egokitzea:**
- Zerbitzua komunitatean txertatzeko eta haur, nerabe eta gazteen erreferentziazko agente bilakatzeko lan proposamena.
  - Herriko haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten gainontzeko eragileekin elkarlanerako proposamena.
  - Herriko agendan, dinamikan eta ekintza komunitarioetan parte hartzeko proposamena.
  - Itsasondoko printzipioei erantzungo dien planifikazioa.

### **7.- ITSASONDOKO UDALAREN BETEBEHARRAK.**

Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu Haur, Nerabe eta Gazteen Parte-Hartzeko Sustatzeko zerbitzua behar bezala emateko beharrezko diren altzari, material, agiri-bilduma, bitarteko informatiko eta programa guztiak. Elektraingar eta telefono gastuak Udalak ordainduko ditu, baina esleipendunak horien administrazio guztiz egoki eta neurrikoa eginez erabiliko ditu. Era berean, hornikuntzan egoki diren konponketak eta beharrezko diren hobekuntzak egiteaz arduratuko da. Halaber, ekipamenduaren garbiketa udalaren ardura izango da.

Egoera onean zaindu beharko da hornikuntza guztia bai bertan dauden bitarteko material

guztiak ere, horien erabilera egoki eta arduratsua eginez. Zerbitzuaren kostua Gipuzkoa (zerbitzua emango deneko eremu geografikoa) mailako sektorial hitzarmenean onarturiko lan-harremankiko dago kalkulatu eta baldintza hauek, edo eremu berean hauek ordezkatzeko onesten direnak, kontratua burutzen ari den bitartean mantendu beharko dira.

## **8.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.**

Zerbitzu guztia euskaraz eskainiko da.

### **8.1.- Hizkuntza-gaitasuna.**

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatubeharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatubeharko dute langile guztiek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzekeo honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea.
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

### **8.2.- Hizkuntza paisaia.**

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

### **8.3.- Erabilera herritarrekin.**

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.



Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharra, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira.

Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu behar du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udalera eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

#### **8.4.- Erabilera administrazioarekin.**

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

#### **9.- KONTRATUA BERRAZTERTU ETA ALDATZEA.**

Administrazioak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiengatik, aurreikusi gabeko arrazoiengatik, eta kontratistak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango. Ondoko irizpideak ezartzen dira:

a) Xedeari dagokionez: Kontratua sinatutakoan, udalak aldaketak ezar ditzake zerbitzua osatzen duten elementuen interes publikoko arrazoiengatik, beti ere, beste behar batzuek edo ezusteko arrazoiengatik baldin bada. Kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango, ez badiote oreka finantzarioari eragiten. Administrazioak egindako aldaketek eragin ekonomikorik ez badute, kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango arrazoi horrengatik.

b) Zioei buruz: aldaketaren arrazoia izan daiteke zerbitzua arautzen duten baldintza teknikoetan jasotako edozein.

c) Sektore Publikoko Kontratu Legearen 204. artikuluari jarraiki, kontratua aldatzeko honako kausa aurreikusten da:

COVID-19 edo antzerako beste egoera pandemikoren ondorioz, udalaren menpe ez dauden arrazoiengatik eta osasun arauak betetzearren, aurreikusitako beharrak (hezitzaile gehiago, aurreikusitako segurtasun neurri zorrotzagoak...) aurreikusitakoak baino handiagoak balira, urteko aurrekontua gehienez %20 handitu ahal izango da. Handitze hau

behar bezala justifikatu beharko du enpresa hartzaileak.

### **10.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA.**

Zerbitzuarekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Itsasondoko Udalak, adjudikaziodunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

ITSASONDO, 2023ko otsailaren 3an KULTURA ETA GAZTERIA SAILA